

Sabemos que la justificación de un diccionario normativo reside justamente en su aceptación por el conjunto de hablantes en general y de escritores en particular. Si éstos no lo adoptan como suyo, nuestro trabajo habrá sido estéril. Afrontamos este riesgo, pero en lugar de buscar el éxito fácil e inmediato, preferimos realizar una labor con proyección de futuro. Para que estos presuñpuestos no malogren la viabilidad de nuestro trabajo, pensamos que es necesaria una tarea complementaria, al margen de la específica del diccionario: la de divulgación de los criterios que hemos utilizado para la resolución de los problemas que se nos han ido planteando, a través de artículos en alguna de nuestras revistas. En este punto seguimos el ejemplo de Pompeu Fabra, cuya serie de artículos *Converses Filologiques* fué decisiva para el éxito de su *Diccionari General de la Llengua Catalana*, que consagró definitivamente al catalán como lengua de cultura.

Deseamos sinceramente que nuestro trabajo sea criticado y juzgado sin contemplaciones, pero teniendo en cuenta que no tratamos de establecer el modelo idiomático más depurado, ni el más popular, ni el más castizo, y que mucho menos tratamos de reconstruir el protovasco. Nuestra labor, y somos conscientes de ello, es mucho más oscura e ingrata, y quizá para algunos más prosaica. Consiste simplemente en aportar todo nuestro esfuerzo en el establecimiento de un idioma de cultura.

KOSKA ETA ENTTERKA HELETAN

1976-IX-24

P. Lafitte

Herri guzietan ohidurak ez dire berdinak *hi*-ka mintzatzeko.

Asko tokitan haur ttiki-ttikieri ez zaie *hi* erraiten, *zu* edo *xu* baizik.

Geroxago, adimendu adinerat heldu-ta hasten zaie *to*-ka ala *no*-ka.

Bainan zenbait etxetan, seme-alabak tarrutu direnean, berriz ere *zu* edo *xu* entzun behar dute. Gazteen arteko ohidurak ere pondu horri buruz desberdinak dira.

Uztaritzen, konparazione, euskaraz, adin bereko muti-koek ez dute elgarri *to* erraiten, ez badira kartier edo hauzo berekoak.

Bainan bada han-hemenka bitxiagorik et txosten labur huntan Heleta-ko berezitasun bat nahi nuke aipatu.

Heleta da Baxenabarre Arberuko herri pollit bat.

Horko etxe batean, bazituzten lau seme eta hiru alaba. Familia horren ikusten izanik, laster ohartu ginen bi mutikori *toka* mintzatzen zirela, neska bati *noka*, eta bertze haurreri *zuka*.

Haur bakotxari galde eginik zenbat urte zituen, konturatu ginen adinetik ez zela heldu aitamek egiten zuten berexgoa.

Mixerioa ezin xilatuz, amari eskatu genion argi gaitzan. Ihardetsi zaukun:

—Bestek bezala guk ere kiskari *hi* erraiten dakogu eta enterkari *zu*!

Ordu arte enetzat *koska* hitzak hiru gauza erran nahi zituen: ogi gaizki errea; aharien arteko balkada, eta jende bortitz tematsu erroka bat.

Heletako etxeandereak gauzak haxean eman zauzkigun.

Entterka da presuna bat fina, lerdena, ederra baino polli-tagoa, itxuraz bederen ez-tia, goxoa, geldia, ixila, beralza; horrek ez du erran nahi ez duela maleziarik; barne handia badauka, luzakor bainan ez ahanzkor.

Kuskak aldiz arruntago emaiten du kanpuz, hazkarrago, bortitz aire batez, gura mintza, jestua errex, guti aski jauzteko, ez haalik irurikorra, bezperako hasarren bultak aise ahanzten.

Etsenno Salaberry jaun kalonjeak, Helebarra delakotz, sakunkiago argitu gaitu psikologiazko bi hitzez.

Haren arabera, *entterka* da "introvertido"; eta *kuska* "extrovertido".

Ez da harritzeko aitamek berex dezaten beren haur bakotxaren eite sakona, bainan nork asmatuko zuen eite hurrek manatuko zuela *hika* ala *zuka* mintzatzea?